

61E/2023 Ebazpena, abuztuaren 11koa, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak emana, ondoko deialdiaren esleipena ebazten duena: "Euskarazko hedabideen berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuei emandako laguntzak".

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4635-2023-000000**

UNIDAD GESTORA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tel.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskarazko hedabideen berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuei emandako laguntzak

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak txosten bat aurkeztu du, non proposatzen baita 2023ko laguntzak ematea euskarazko hedabideen berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuei, ebazpen honen bidez. Laguntza horiek Herritarrekiko Harremanetako kontseilariaren maiatzaren 23ko 70E/2023 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzte.

Batzorde Teknikoak eskaerak ebaluatu ditu, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat, eta onuradunek laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatu du.

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa onartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuak emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. Eskatutako laguntzak esleitzea taula honetan jasotako onuradunei:

Hedabidea / Medio de comunicación	Enpresa /Empresa	IZK / CIF	Puntuazioa / Puntuación	Esleitutako dirulaguntza / Subvención concedida
Berria	EUSKAL EDITOREA SL	B20809042	72	21.942,66€
Hamaika TB	NAFAR IKUSENTZUNEOAK SA	A01418565	69	30.000€
Mailope aldiakaria	ASOCIACION CULTURAL MAILOPE	G31736077	30	27.300€
Euskalerrria irratia	IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK SA	A31197312	52	30.000€



Xorroxin irratia	ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA	G31267008	47	8.620€
Ttipi-ttapa	FUNDACION TTIPI-TTAPA	G31595473	47	30.000€
Guaixe aldizkaria	GUAIXE FUNDAZIOA	G31981509	50	30.000€

- ONG Pausu Media elkarteari eskatutako laguntza ukatzea, deialdiaren 3. oinarrian eskatutako baldintza ez betetzeagatik.
- Dirulaguntza epe bakar batean ordainduko da urtea bukatu baino lehen, organo kudeatzaileak 7. oinarrian eskatutako dokumentazioa berrikusi ondoren. Balorazioaren irizpideen arabera behar bezala egindako proiektuei emakidan ezarritako zenbateko osoa ordainduko zaie.
- Ebazpen hau eskatzaile bakoitzari jakinaraztea, eranskin batekin batera, zenbatekoa eta emandako laguntzari buruzko gainerako inguruabarrak adierazita. Kasuren batean dirulaguntza ukatzen bada, arrazoiak azaldu beharko dira.
- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar dezakete jurisdikzio eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita. Hala ere, aurretiazko errekerimendua egin ahal izango diote Nafarroako Gobernuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2023ko abuztuaren 11n.

**EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA**
Mikel Arregi Pérez

